

# TOISOIAREN EBASKETA

Bigarren Gerra Karlista (1872-1876) bukatzean, Karlos Maria Borboi Austria-Esteakoak, Espainiako tronurako erregegai karlista zenak Karlos VII. tituluarekin, Alderdi Karlista eratzeko agindu zion Carlos González Boet militar gazte ekintzaile eta zorrotzari (Boet izenarekin ezagutzen zen).

1877an, On Karlosek Vienara bisitan laguntzeko eskatu zion Boeti, ordena laguntzaile zuen Montserrateko bizkonde José Montagut y Suelvesi eta konfiantzazko gelazain Francisco Lorenzo Arbulori.

Bidaiaren xedea zen erregegaiaren negoziazio batzuk egitea, Modenako dukeak hiltzean utzitako herentziaren kariatara. Izan ere, dukea On Karlosen osaba zen eta, ahaide gisa, erregegaiari herentziaren zati bat zegokion.

Vienan hilabete batez negoziazioan aritu ondoren, Karlos VII.ak lortu zuen Karlos Luis Austriakoa artxidukeak 85.000 pezetako balioa zuen urrezko toisoi bat ematea.

Behin toisoi entregatuta, On Karlos Gantzerara joan zen, bertan bizi baitziren bere ama eta anaia Alfontso Karlos. Gantzen argazkia egin zuen toisoiarekin eta Frantziara bidean paratu zen. Bidean, Hungariara joan zen lehen aldiz, Italian gelditu zen, lehenik Venezia eta ondoren Milan bisitatzeko. Milanen, hotel honetan hartu zuen ostatu, Hotel de la Ville-n.

Abenduaren 13an, Milango Galvani kondearekin bazkaldu ondoren, Lorenzo gelazainari agindu zion, hura baitzen bitxia eta erregegaiaren gainontzeko ondasunak zaintzen zituen, toisoiaren bila joateko, kondeari erakusteko. Baina Lorenzo itzuli zen eta aditzera eman toisoi ebatsia izan zela.

Lorenzok esan zuenez, toisoi estutxe itxi batean gorde zuen eta, halaber, estutxea bidaia zorro batean, giltzaz itxia. Bisitatu zituzten hoteletan altzari itxietan gordetzen zuen eta bidaiari zehar bere gorputzari loturik eramanean zuen. Inoiz ere ez zen bitxia gordetzen zuten sarrailek giltzetatik aldentzen.

Egun horretan bitxia gorde zen hoteleko altzaria, zorroa eta estutxea aztertu ziren, baina ez ziren bortxaz irekiak izan. Bitxiarekin batera, zorroan, hainbat esku-diru zegoen, baina dirua ez zen ebatsia izan.

Inork ez zuen deus ulertzen; are gutxiago Lorenzok. Ziur zegoen une bakar batean ere ez zituela giltzak galdu eta ziur zen bitxiak gordetzen zirenean, bera lo zela, ez zela inoiz ere inor sartu. Era berean ez zuen argi lapurreta non suertatu zen, zorroa ez baitzen berriz ere ireki On Karlosek Gantzen toisoiarekin argazkia egin zuenetik.

On Karlosek ebasketa salatu zuen komisaldegian, baina ez zituen ez hotela ezta langileak ere salatu, nahiz eta hori izaten den halako kasuetan egiten den lehen gauza. Datu hori deigarri egin zitzaion poliziari ere. Era berean, susmagarria izan zen erregegaiak ez zuela deklaratzailerik gisa deitu Boet, bidaiari zehar une oro ondoan izan bazuen ere. Segizioan beheargoko karguak zituzten laguntzaileak bai, horiek guztiak deitu zituen deklaratzera. Areago, deitu ez eta eginahalak egin zituen justiziari jaun hura iker ez zezan.

Handik egun gutxira, berria prentsara iritsi zen eta European mundu guztiak pentsatu zuen fede onez Karlos VII.aren toisoi ebatsia izan zela. Karlosen aurkariak poztu eta karlistak atsekabetu egin ziren.

Behin deklarazioak hartu ondoren eta, balizko errudun baten gaineko susmorik ez zegoenez, Karlos VII.aren segizioa Turinera joan zen eta handik Parisera. Bertan, Boetek baimena eskatu zuen lekutzeko eta Baionan zuen familia bisitatzeko.

1878ko urtarrilaren hasieran, Boet Baionarik desterratu zuten eta Alexko markesak Toulousean zuen etxalde batera erretiratu zen. Baionako agintariek aukera eman zioten bertan gelditzeko, betiere Alderdi Karlistaren aldeko jarduerak alde batera uzten bazituen. Boet hainbat aldiz aldatu zen etxez, karlistei non zegoen ezkutatu.

Garai berean, Boeten emaztea, diskrezioz, Baionako bitxi-saltzaileei diamanteak saltzen hasi zen. Sektorean deigarri gertatu zen salmenta hori eta harriak ebatsitako bitxiaren zatiak zirela susmatzen hasi ziren.

Albistea prentsara iritsi zen eta Europa guztia hasi zen pentsatzen toisoiaren ebaslea Carlos González Boet izan zela.

Boeten ahaideendako zalantzagarrria zen hura guztia, baina bazekiten Boet arruinaturik zegoela eta bere familiak salgai zituen bitxien jatorria ez zegoela argi.

Hura guztia On Karlosen aditzera iritsi zenean, Boet atxilotzeko eskatu zuen.

1878ko martxoaren 10ean, Boetek, egoera konpondu nahian, On Karlosi diamante pakete handi bat igorri zion laguntzaile baten bidez, horrela aitortuz harribitxiak ebatsitako toisoiari zegozkiola. On Karlosek igorria onetsi zuen eta salduak izan ziren gainerako harriak erreklamatu zituen.

Ez zituenez haiek eta Boet non zen jakiterik ez zegoenez (zitekeena zen Errusian izatea), agintariek emaztea atxilotu zuten.

1878ko maiatza hasieran, Boet ustekabeen justiziaren aurrean entregatu zen Erroman eta prentsan zabaldu zen manifestu baten bidez jakinarazi zuen Karlos VII.aren familia arruinaturik zegoela eta On Karlos bera izan zela bitxiaren ebasketa antolatua zuena, saldu ahal izateko eta, horrela, zenbait zor ordaindu ahal izateko.

**Gertakariak epaituak izan baziren ere, inoiz ez zen proba erabakigarriarik eskuratu, jakiteko nor esan zuen egia.**

**Karlos VII.ak simulaturiko ebasketa izan zen, zorrak ordaintzeko?**

**Boet izan zen errudun bakarra eta, delitua azaleratu zenean, On Karlos tartean nahasi nahi izan zuen?**

**Zeinek esan zuen gezurra?**

Istoria hau benetako gertaera batean oinarrituta dago. Gehiago jakin nahi baduzu, informazioa aurkituko duzu ondoko liburuetan:

Carreras, Luis: *Boet. El Toisón de Oro*, Bartzelona, Salvador Maneroren inprimategia, 1880.

*Causa célebre. El robo del Toisón: don Carlos y Boet*. Madril, Fortanet inprimategia, 1880.

Bi argitalpenak jendearen eskura daude Karlismoaren Museoaren Dokumentazio Zentroko liburutegian.

Eskaiezaguzu hitzordua eta zatoz astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00 bitartean. Tel. 948552111.